


PRESBIDEKO BERRIKUNTZAK - 2017KO OTSAILA

- 1- Presbide. Euskarazko aukera, lehen mailako arretatik sartzen diren profesionalentzat.
- 2- Hobekuntzak atxikidura-maila kalkulatzeko funtzionaltasunean.
- 3- Preskripzio akutuak amaitzea: berrmatuta egongo ezin izango direla farmazian dispensatu.
- 4- Jarraipen-marka Arreta Espezializatuan. Ondorioak hainbat arreta-arloetako profesionalen preskripzioen kudeaketan. Osabide Globalen eta Osabide APen egiteko dauden lanak.

1. PRESBIDE. EUSKARAZKO AUKERA, LEHEN MAILAKO ARRETATIK SARTZEN DIREN PROFESIONALENTZAT

Osabide APeko menu nagusian «Euskara» aukeratuz gero, Presbideren euskarazko bertsiora automatikoki aldatuko da.




Presbide aplikazioaren pantaila eta mezu guztiak euskaratu dira. Aukera askotan tooltip bat ipini da; kurtsorea zutabearen burualdean ipinita, testu osoa ikusiko dugu.



Bestalde, oraindik ere euskaratu gabe dago medikamentuaren ezaugarri buruzko informazioa (modu farmazeutikoa, emateko bidea, etab.) eta preskripziorako laguntzei buruzkoa (interakzioak, etab.). Euskaratu ahala txertatuko dira.

2. HOBKUNTZAK ATXIKIDURA-FUNTZIONALTASUNEAN

Presbidek atxikidura-maila kalkulatzeko duen funtzionaltasun bat erabiltzen du, azken 8 hilabeteetan preskribatutako/dispensatutako medikamentuen erregistroak kontuan hartuta. Atxikidura-mailatik kanpo geratzen diren preskripzioak (% 80-110 tik kanpo) pazienteari arreta ematen dion edozein profesional sanitariok bistartzeko aukera dauka, asistentzia-maila edozein dela.




Honako hobekuntza hauek egin zaizkio funtzionaltasunari:

Ospitaleratze-egunen gaineko informazioa


Pazientea ospitaleratu badute azken 8 hiletan (Presbidek atxikidura kalkulatzeko erabiltzen duen epea), Presbideko atxikidura-funtzionaltasunak bi bidetatik emango digu informazioa:



- **Abisu agerkariak:** epe horretan ospitalean egon den egunen kopurua jakinarazten du.



Ohar hori agertuko da pazientearen atxikidura orokorrean zein banakakoan klikatuz gero (preskripzioaren xehetasunetan klikatuta).



- **Informazio integratua,** atxikidura globalaren eta banakakoaren pantailen burualdean.



Preskripzioa ▾ Medikazio-orria ▾  

Betetze-mailaren kalkulu-aldian zehar, pazientea 241 egunez egon da ingresatuta


→ Pazientearen atxikidura orokorra

Pazientearen tratamendu aktibo guztien atxikidura								
Egoera	Mota	Espa.	Produktua edo DOE multzoa	Azken banaketaren data	Kredituaren amaiera-data	Huts egindako egunak	Abiki. %	
 	C	E	ABSOR INCONTINENCIA NOC ANAT 60U		2016/10/05	126	0.00	

Hartu kontuan ospitaleratze-egunei buruzko datua informaziorako besterik ez dela; Presbidek ez du kontuan hartzen atxikidura kalkulatzeko.

Atxikidura. Hobekuntza berri gehiago

- Preskripzio baten atxikidura kalkulatzeko, dagoeneko kontuan hartzen dira kreditu gehigarrien banaketak eta inprimaketak. Hori dela eta, batzuetan % 100dik gorako atxikidurak lortuko ditugu.
- Kreditu gehigarrien banaketak eta inprimaketak fuksia kolorez aurkezten dira atxikidura orokorraren grafikoan.
- Aurrerantzean ez da grafikoaren eskuinaldean agertuko pazienteak medikazioa noiz arte (data) eraman duen. Datu hori kontsultatzeko, «Kredituaren amaiera-data» izeneko zutabea gaitu da.



3. PRESKRIPTION AKUTUAK AMAITZEA: BERMATUTA DAGO EZIN IZANGO DIRELA FARMAZIETAN DISPENTSATU

Oro har, preskripzio akutuak farmazian dispentsatu ahal dira preskripzioa hasi eta ondorengo 10 egunetan, amaiera-data edozein dela ere. Izan ere, esaterako, preskripzio bat egun berean hasi eta bukatu arren dispentsatu daiteke ondorengo 10 egunetan.

Aurrerantzean, medikuak sortutako preskripzio akutu bat amaitzea erabakitzen duenean (adibidez, akatsez sortutako preskripzioak), automatikoki agertuko da farmazian «ezin da eman», eta pazienteak hartzea ekidingo da.

Preskripzioaren informazioa

Produktua: 661467 - AMOXICILINA ARDINE 250MG/5ML SUSP 120ML Edukia: 24 5ML Aldatu Produktua edo DOE Multzoa

Printzipio aktiboa ATC: AMOXICILINA Dosis: 1 (5ML) ~ 250 (MG) ~ 5 (ML) Hartzeko bidea: ORAL Gertakaria: Hospitalización a Domicilio

Mota: Akutua Tratamenduaren hasiera: 2017/02/07 Osasun kanpaina: Etxean preskribitua: Jarrapena:

Egoera: Preskripzio aktiboa Egoera berria: Amaituta Egoera-aldaketaren arrazoiak: **Ezin da eman** Aldatuta: 2017/02/07

Posologia **Datu gehiago** **Aldaketak** **Inprimatutako kreditua (Errezetak)** **Dispentsatutako kreditua (eRezeta)** **Jakinarazpenak(0)**

Hartualdi bakoitzeko dosia: 1 5ML ≈ 250 MG ≈ 5 ML


Amaitu beharreko preskripzioak

Egoera	Ber. / Amaiera	Mota	Produktua edo DOE multzoa	DOE	Printzipio aktiboa	Hartualdi bakoitzeko dosia	Ohiko pauta	Preskripzio-egilea	Amaitzeko arrazoiak	Ezin da eman
✓	2017/02/13	A	Amoxicilina Ardine 250mg/5ml Susp 120ml		Amoxicilina	5 ML	Gosaria, bazkaria eta afa...	E		Ezin da eman

4. JARRAIPEN-MARKA ARRETA ESPEZIALIZATUAN. ONDORIOAK HAINBAT ARRETA-ARLOETAKO PROFESIONALEN PRESKRIPZIOEN KUDEAKETAN. EGITEKO DAUDEN LANAK

Orokorrean, edozein dela ere preskripzioaren jatorria (LMA edo AE), paziente baten tratamendu kronikoaren jarraipena Lehen Mailako Arretatik egiten dela kontsideratzen da. Hala ere, zenbait egoeratan gerta daiteke jarraipen berezia egin behar izatea, osasun mentaleko sarean edo ospitale baten kanpo kontsultetan.

Presbidek aukera ematen dio osasun mentaleko edo espezializatuko medikuari preskripzio jakin baten jarraipena egiteko, luzapenen kudeaketa barne. Horretarako aski da preskripzioen xehetasunetan sartu eta «Jarraipena» atala markatzea.



The screenshot shows a medical software interface for a prescription. The title is "Preskripzio - Posologiaren informazioa". The product is "697422 - LEPONEX 100MG 40 COMPRIMIDOS" with a dose of "40 COMPRIMIDO". The principle active ingredient is "CLOZAPINA". The dose is "1 (COMPRIMIDO) ~ 100 (MG)". The route is "ORAL". The start date is "2017/02/07" and the review date is "2017/5/7". The "Jarraipena" checkbox is checked and highlighted with a red box. Other options include "Osasun kanpaina" and "Etxean preskribitua". The "Posologia" section shows "Hartualdi bakoitzeko dosia" as "1 COMPRIMIDO" and "Pauta: Noiztik behin?" as "Oheratzean".

Osasun mentaleko edo espezializatuko medikuek baizik ezin dezakete jarraipen-marka aktibatu edo desaktibatu. Lehen mailako arretako medikuak ikusi besterik ezin izango du egin.

Luzapenak kudeatzea eta tratamenduak berrikustea

Preskripzio kroniko batean edo eskariaren araberako ("A Demanda") batean jarraipen marka aktibatzeak zuzenean eragingo du berrikusketen kudeaketan, baita luzapenetan ere.

Luzapen «automatikoak» Presbiden:

Preskripzio kroniko bat edo eskariaren araberako ("A Demanda") preskripzio bat sortzen edo aldatzen/luzatzen dugunean, Presbidek pazienteak aktiboak dituen preskripzio kronikoak eta eskariaren araberakoak ("A Demanda") eskainiko dizkigu, baina finkatu dugun data baino lehenagoko ikuskapen-data dutenak, luzatu ahal izateko, hala badagokie. Aurkeztutako informazioa arreta-esparruaren araberakoa da, eta preskripzioak jarraipen-marka aktibatuta edukitzearen edo ez edukitzearen araberakoa.

Prescripción | Hoja de Medicación | Contacto | Ayuda

La prescripción ha sido creada correctamente

Prorrogar Fecha de Revisión de Prescripciones Crónicas Nueva fecha de revisión: 16/07/2017

Prorrogar Prescripciones. A continuación se muestran las prescripciones activas del paciente cuya fecha de revisión es anterior a la registrada.

<input type="checkbox"/>	Estado	Tipo	Amb.	Producto o conjunto DOE	DOE	Principios Activos	Dosis por toma	Pauta habitual	Prescriptor	Rev/Fin	Nueva Revisión
<input type="checkbox"/>	✓	C	SE	Escitalopram 10mg 28 Comprimidos Recubiertos	✓	Escitalopram	1 COMPRIMIDO	24 horas		17/02/2017	<input type="text"/>
<input type="checkbox"/>	✓	D	SE	Lorazepam 1mg 25 Comprimidos	✓	Lorazepam	1 COMPRIMIDO	Acostarse		18/03/2017	<input type="text"/>

Prorrogar Prescripciones No Prorrogar Prescripciones

- Lehen mailako arretako zentro batetik konektatzen den langile batek «Jarraipena» markatuta ez duten prezkripzioak ikusiko ditu soilik.
- Langilea, aldiz, espezialitate-zentro batetik konektatzen bada, bakarrik bere zentroko zerbitzuak eta sekzioak «Jarraipena» markatuta duten preskripzioak ikusiko ditu.

Luzapen «eskuzkoak» Presbiden:

Presbiden aktiboak dauden preskripzio guztiak luzatu/aldatu ditzake mediku orok, edozein arreta-esparrutan jardunda ere eta jarraipen-marka aktibatuta egon edo ez. Dagokion preskripzioa hautatu eta luzapenaren botoia sakatu besterik ez du egin behar. Horretarako, aldatu/luzatu nahi den preskripzioaren xehetasunetan sartu behar da.

Tratamenduen berrikuspena kudeatzea « Egiteke dauden zereginak » aztertuta:

Osabide APek eta Osabide Globalek Egiteke dauden zereginak biltzen dituen atal bat dute, bertan, berrikuspen-datatik gertu dauden tratamenduak aurkezten dira . Kasu bietan, lehenespenez, hurrengo 45 egunen barruan berrikuspen-data beteko duten preskripzioak agertzen dira

- **Osabide AP:** « Egiteke dauden zereginak – Preskripzioak » atalean, «Jarraipena» markatuta ez duten tratamenduak ageri dira.
- **Osabide Global:** «Berrikusi beharreko preskripzioak» atalean, «Jarraipena» markatuta duten tratamenduak eta profesionalak preskribatutakoak bakarrik ageri dira. Zerbitzuan jarraipen-marka jarritako preskripzioak bilatzeko aukera ere eskaintzen da.



TAREAS PENDIENTES

- RAYOS DE TIEMPO 24 HORAS
- RAYOS DE TIEMPO 26 HORAS
- ANALITICAS
- ANALITICAS PENDIENTES
- CONGULTAS NO PRESENCIALES
- CNP PENDIENTES
- HALLAZGOS RELEVANTES
- PENDIENTES VISUALIZAR
- PRESCRIPCION
- PRESCRIPCIONES PENDIENTES DE REVISAR**
- MENSAJES AL PACIENTE

Prescripciones Pendientes de Revisar

Mostrar prescripciones por servicio (CARDIOLOGIA) Fecha Referencia: 18/01/2017

Estado	Producto o conjunto DOE	DOE	Principios Activos	Dosis por toma	Pauta habitual	Prescriptor	Rev/Fin
✓	QUETIAPINA 25MG 60 COMPRIMIDOS RECUBIERTOS					CARDIOLOGIA GRAL.	SEIS, PRUEBA PRUEBA

Pazienteko erregistro bat aurkezten da. Paziente batek hurrengo 45 egunen barruan berrikuspen-data beteko duen preskripzio bat baino gehiago badu, berrikuspen-data gertuen duena bakarrik aurkeztuko da.

Erregistro horretan klikatuz gero, Presbiden sartuko gara zuzenean, eta pazientearen tratamendua berrikusi ahal izango da.

Informazio osagarria

Presbiden egindako berrikuntzak eta hobekuntzak jasotzen dituen historikoa intranetean eskuragarri dago helbide honetan:

> Hasiera > Osasuna Arreta > Farmazia > Preskripzio elektronikoa eta vademecum-a > Presbide. Eguneratzeak

Edozein iradokizun egin edo azalpen jaso nahi izanez gero, zure Erakundeko Presbideko arduradunaren edo helbide elektronikoa honen bidez egin daiteke:

PRESCRIPCION.ASISTENCIASANITARIA@osakidetza.eus